

Getxoko liburutegiek eta ikasgelek azterketen garaira moldatuko ordutegi berriak jarri dituzte martxan

BILBO, 12 (EUROPA PRESS)

Getxoko Kultur Etxeko liburutegietan eta ikasgeletan ordutegiak luzatuko dira irailaren 14ra arte, astelehenetik ostiralera, iraileko azterketen aldia dela eta. Halaber, larunbatetan eta igandeetan ere zabalduko dira, eta guztira, Getxoko ikasleek ikasteko 350 leku baino gehiago izango dituzte. Horrez gain, J.B. Zabala eta Romo ikastetxeek eta Getxo I Institutuak ere zenbait ikasgela eskainiko dituzte abuztuaren 18tik irailaren 12ra.

Atzo hasita eta irailaren 14ra arte, Villamonteko liburutegiak eta Santa Eugenia plazako ikasgelek 170 ikas-leku eskainiko dituzte eta horien ordutegia luzatu egingo da asteburuetan. Horrela, bada, larunbatean goizez eta arratsaldean egongo dira zabalik. Igandean, berriz, Villamonteko liburutegia 16:15etik 20:00etara zabalduko da, eta Santa Eugeniako ikasgelak, 16:00etatik 20:00etara.

Bestalde, San Nikolas plazako, Areetako eta Erromoko liburutegietan ordutegi berriak abuztuaren 18an abian jarriko dira, irailaren 14ra arte. Liburutegi horietan honako hau izango da ordutegia astelehenetik ostiralera: 8:15etik 14:00etara eta 16:15etik 20:00etara.

Larunbatean 9:15etik 13:00era eta 16:15etik 20:00etara egongo dira zabalik. Azkenik, igandeetan arratsaldean baino ez dute irekiko, 16:15etik 20:00etara. Halaber, aipatu behar da liburutegi eta ikasgela guztiak abuztuaren 15eko jaiegunean ere egongo direla zabalik.